

Prentsa nazionala eta prentsa lokala

Jexuxmari Zalakain
Kazetaria

Artikulu honek zenbait arazo teoriko planteiatzen ditu. Hasteko, *prentsa nazionala* ala *prentsa lokala* aipatzen dugunean zer ulertu behar dugun. Horretarako hiru ikuspegi desberdin jokatzen ditu: geografikoa, barne-antolaketari dagokiona eta politikoa. Azkenik bi aukera-pare hauen artean ebatzi beharra plazaratzen du, alegia, *euskal prentsa / euskarazko prentsa* eta *euskal prentsa / herrietako prentsa* kontzeptuen artean, besterik dirudien arren, ez baitira gauza bera.

This paper deals with some theoretical questions. Firstly, what we should understand when we mention the phrases *national press* or *local press*. On this regard, it presents three different perspectives: Geographical coverage, internal media organization, and political viewpoint. Finally, it prompts the need to choose between the following two pairs: *Basque Press / Press written in Basque* on the one hand, and *Basque Press / Press of the local towns* on the other.

Prentsa lokal idatzia osasun onean dago, antza; gorakadan. Hego Euskal Herrian kalera egiten duten ehundik goratik, 40 bat dira euskara hutsez argitaratzen direnak. Baturik, *Deia*, *Egin*, edota *Diario de Navarra*-ren tiradak gainditzera ailegaten dira. 300.000 irakurle omen ditu Jose Felix Díaz de Tuestak emandako azken datuen arabera. Ugalketa bizia izan da azken urteotan. Duela ez urte asko, erabat erraza zen euskarazko prentsa zenbatzea. Titulu guztiak buruz jakitea ez zen beste munduko arazorik. Informazio orokorrekoak soilik hartzen baditugu, hauxe zen dena: 1982an *Anaitasuna* ito zutenetik, *Argia* Euskal Herri osoan, *Herria* Iparraldean eta *Zer* Bizkaian bizkaieraz idatzia. Orain, prentsa lokala deitzen den fenomeno hedatu zenetik panorama erabat aldaturik agertzen da. 1988an jartzen da fenomeno honen jaiotze-urtea *Arrasate Press* sortzean, nahiz eta aurretik anitz aitzindari izan, hala nola *Tiipi Ttapa* (Bortziri eta Malerreka), *Auskalo* (Oñati), *Aske* (Lezo), *Nondik* (Ataun), *Hots* (Legazpi), *Kontxo* (Tolosa), *Nontzebarri* (Mungia), *Plazara* (Hondarribia), *Sustraiak* (Lekeitio), etab. Tirada orokorra biziki ugaldtu da data horretatik hona. Zenbaki borobiletan esateko, 10.000 (1988), 60.500 (1991), 74.000 (1992), 82.000 (1993), 95.000 (1994).

Fenomeno aztergarri bilakatu da, besteak beste, erreparatzea merezi duen fenomeno alegia. Dagoeneko zenbait ihardunaldi burutu dira, prentsa lokala gaitzat harturik: *Prentsa lokalari buruzko 1 eta 2. Ihardunaldiak* (AED, 1991-XI-22 eta 23an eta ARKO,

1993-XI-26 eta 27an; biak Arrasaten) eta *Herri eta Eskualdeetako prentsa idatzia* (UEUko Kazetaritza Saila, 1993-VII-19tik 30era, Iruñean). Tartean, *Jakin* aldizkariak (1992-III/IV) bere 69. zenbakia eskaini zion gai honi. Azterketa soziologikoak ere egin dira. Partzialak, hots, aldizkari solteak arakatzekoak, baina kontutan hartzekoak: *Arrasate Press* (AEDk, Lankide Aurrezkiko Marketing Sailaren ardurapean 1989ko irailean egina lehenengoa, eta bigarrena Jose Manuel Bergaretzek Deustuko Unibertsitateko Soziologi Fakultateko Itziar Basterretxearen gidaritzapean burutua 1991ko urtarrilean); *Berrigara*, (Jardun Elkarteak Nekane Beloki Arizti soziologoaren zuzendaritzapean 1993ko martxoan osatua), *Tiipi-Ttapa* (Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak, Soziologia Lantegiari eskatutako *omnibus*-aren zatia, 1992ko urrian). Ikusterik izan ez dudan arren, oraingoz, azkena, HPINek argitara emandako *Berripapera*-ren arabera (27. zb., 1994-VIII), aipatu Díaz de Tuestak eginikoa.

Euskaldunon Egunkaria ez bezala, eta aurreko hamarkada osoan *Argia* ez bezala, prentsa lokala deitzen den fenomeno hau begikoa izan du Jaurilaritzak, edota hobeki esateko Kultura Saileko gidariek¹. Euskarazko egunkari bakarra sortzear zegoela, Kultura Sailburuak eta Iñaki Zarraoa bere bigarrenak, behin eta berriro aipatu zuten prentsa lokalaren bidea indartzeko premia (egunkaria baztertuz, jakina). Haria galdu gabe, iazko Rikardo Arregi Kazetaritza Saria

1. *Euskaldunon Egunkaria* eta Jaurilaritzak 1994ko ekainaren 30an lortu dute abiapuntutzat kontsideratzen den akordioa. Geroak esango du akordio honek zer ematen duen. Oraingoz etapa oso baten amaiera zoriotsutzat hartu behar da.

emateko egunean Joseba Arregik esandako hitzak honela ematen zituen *Egunkaria*-k:

Joseba Arregi Kultura Sailburuak ere herri aldizkarien lana goraiatu du eta haiei orain arte bezala laguntza ematen jarraituko duela esan zuen. Era berean, euskal kazetaritzak orokorrean Eusko Jaurlaritzaren laguntza gutzia izango duela gaineratu zuen, horrela euskal kazetaritzak askatasuneko etorkizuna izan dezan².

Sari hori emateko eratu zen Epaimahaiak, berriz, honelaxe azpimarratu zuen prentsa lokalaren garrantzia:

Herri aldizkarien eskutik jorratzen den herrietako kazetaritza gero eta ugariagoa eta joriago landua, euskarazko kazetaritzaren harrobirik nagusia eta euskarazko kazetaritza idatziari irakurleak gehitzeko biderik egokienetakoa gerta daitekeena (...). Euskarazko kazetaritzan bere burua sendotzen ari den kazetari belaunaldi berria, horien eskuetan bailegoke euskarazko kazetaritzan hain beharrezko den hainbat eraldaketa, eduki eta formaziorik³.

Edozelan ere gustokoa ala gogaikarria, begikoa ala baztergarria, fenomeno honek hurbiletik segitzea eskatzen du⁴. Aipatu lhardunaldietan harrotu da makina bat gauza, baina esan ez diren zenbait aspektu azpimarratu nahi nituzke nik orain artikulua honetan. Ene ustez definizioak ematetik hasi behar da, ez baita inola ere ebidentea prentsa lokalak zer esan

nahi duen, edota behintzat irizpide bat baino gehiago aplika daitekeela argitu nahi dut. Hiru puntu nagusi arakatuko ditut: hasteko, prentsa lokala guttienez hiru ikuspegi desberdinetik aztertu daitekeela erakutsi nahi dut; ondoren, pare bat kontzeptu alderatu nahi ditut, hots, euskal prentsa ala euskarazko prentsa, herri prentsa ala herrietako prentsa. Niretzat ez direla batere aldagarriak aurreratu nahi dut. Azpi-azpian, azterketa honetan honoko galdera hauek kezkatzen naute: prentsa lokala eta nazionala kontrakoak al dira? Aurki al daiteke konbergentziarik bi eredu horien artean? Kezka horixe argitzeko asmoz idatzirik eskaintzen ditut ondoko lerrook. Nik badaezpada ere, hauxe azpimarratu nahi nuke aurrera egin aitzin, hots, ez dela batere hona prentsa lokala aztertzeke, fenomeno hau erreparatzeko orduan, azken hamarkadan gertatutakoa ahanzte, fenomenoak –batik bat arrakastatsuak direnean– ez baitira era mirakulosoan bat-bateko sortzen.

Hiru ikuspegi

Prentsa lokala kontsideratzeko orduan hiru ikuspegi eman daitezkeela uste dut. Ikuspegi hauek beti ere binaka hartuko ditut, hots, prentsa lokala (PL) eta prentsa nazionala (PN) alderatuz.

Lehen ikuspegia geografikoa deituko dut. Ikuspegi honen arabera, PN zazpi probintzietara ailegutzen

2. *Euskaldunon Egunkaria*, 1993-VII-11.

3. *ibid.* Epaimahaia honoko hauek osatu zuten 1993an: Maria Pilar Collantes Andoingo alkatea, Jesus Etxezarraga, Elixabete Garmendia, Joserra Garzia eta Joxe Aranzabal.

4. Tesi pare bat martxan daude UPV/EHU (Itxaso Fernández Astobieta eta Asier Aranguren bakoitza bere aldetik ari dira tesi bana egiten eta Eusko Ikaskuntzak atera berria du beka bat fenomeno hau estudiatzeko).

dena da edota behintzat esparru geografiko zabal hori betetzeko egina dena, ez nahitaez zazpitan saltzen dena. Horren arabera, oso eskasa da prentsa nazionala. Oker ez banago, *Euskaldunon Egunkaria*, *Argia* eta *Aizu*. Aldiz PL, hots, tokian tokikoa, erabat ugari azaltzen zaigu, batez ere herri-mugakoaz gain eskualdekoa ere onartzen badugu, hots, probintzia eta bailararako idatzirik dagoena. Ugartasun honetaz jabetzeko nahikoa da goian egindako erreferentziak kontsultatzea.

Bigarren ikuspegia prentsa idatziaren barne-antolaketari begira har daiteke. Beraz, PN guztien intereserako izan daitezkeen zatiak edo orrialdeak hartzen duena osatuz biltzen da. PL toki bakoitzari dagozkion zatiak, adibidez *Bizkaia*, *Donostia*, *Ondarroa*, deitzen diren orrialdeak zein zatiak. Ikuspegi honi erreparatuz, hedabide idatzi jakin bat, PN izan daiteke zati batzuetan eta PL beste zatietan.

Bi ikuspegi zilegi hauek hartuz, PN eta PLren arteko harremanak planteia daitezke. Hala nola, albisteak nola jasoak ohi diren ala ez estudiatuz (herri batean aldizkari berri bat egin nahi denean gehien erabiltzen den arrazoa, euskara erabiltzearena aparte, hauxe izaten da, hots, medio handiek ez dituztela herri txikietako albisteak jasotzen), bata besteari terrenoa jateko estrategiak ikus daitezke (eta egunkari handiek herri txikietako informazioa menderatzeko ateratzen dituzten eranskinak, edizioak, etab.), elkarlanerako posibilitateak ikus daitezke nahi izanez gero (*Euskaldunon Egunkaria*-k, adibidez, planteiatu du hau zenbait tokitan zorte handirik gabe oso oker ez banago), edota konpetentziarako bideak hausnartu.

Hirugarren ikuspegia ikuspegi politikoa deituko dut. Honen arabera, PN nazioa eraikitzeke proiektuarekin zerikusirik duena, edota nazioa eraikitzeke xedea duen prentsa da. Maila honetan berdin da esparru geografiko osoa hartzea, ala ez. PL, aldiz, egungo errealitatea (banaketa administratiboa esan nahi dut batez ere) zalantzan jarri gabe, egitura soziala eta politikoa ukitu gabe (hor sartu barik), beronen hutsuneak eta akatsak konpontzen saiatzeko sortua eta aritzen den prentsa da. Bertakotasuna eta hurbiltasuna landuko du maila informatiboan hutsune hori bistakoa delako; euskara erabiliko du hizkuntza hori behar bezala ez delako lantzen ez eta elebitasunerako joera duten medioetan, erdarak nagusitzen direlako hain zuzen ere. Egoera politikoaren aldaketa, politikari profesionalentzat utziko du, herriko gatazketan ez du zuzenean parte hartuko, guztientzat zabalik mantenduko ditu orrialdeak, bakoitzak esan dezala nahi beste (*joko* demokratikoaren errespetoa mantenduz), editorialak ebitatuko ditu iritzia emateak duen arriskua saihestuz, iritzi-ugaritasuna bilatuko du, etab.

Gauzak horrela hartzen baditugu, konplikatu egiten zaizkigu; harremana, izatekotan, agian zailago bilakatzen da. PNeen politika da nagusi (ez partidukraziaren arabera naziogintzaren arabera baizik), egiten den guztia iharduera politikoa dela esan nahi baita, errealitatea bera aldatu nahi da prentsa-mailatik, zatiketa administratiboa bereziki. Eta hori naziogintzan –Euskal Herrigintzan alegia– ari den mugimendu zabal eta koloretsuaren zati da nahitaez, talde organizatuetatik independente, lan egiteko askatasuna gordez. Bere esparru propioa, kazetaritza eta

kazetarigintza alegia, errespetatuz eta bertotik irten barik. PLean, aldiz, eguneroko bizitza arruntak dituen gorabeherak kudeatu nahi dira, hor egin kazetaritza, eta hor soilik. Arazo politikoak jasotzen ditu, noski. Baina *beste gai bat* bezala, gizartearen egitura bera kuestionatu gabe, sistemaren aldaketa planteiatu gabe, nazio baten desberdintasun propio eta transferiezinak planteiatu gabe, hots gatazka horren parte izan gabe.

Gizartea eta herri-mugimenduak

Hau ulergarri izan dadin, lehenengo zenbait ideia xehetzea ezinbestekotzat jotzen dut. Lehenengo eta behin *zer den mugimendua*. Talde batek, adibidez euskarazko prentsa gauzatzeko sortu taldeak, bere helburuak formulatzeko, lortzeko eta defendatzeko prozesuan erakusten duen ahalmen objektiboa eta subjektiboa dei daiteke mugimendu.

Mugimendu orok baditu zenbait osagarri: berdintasun-gosea, eskuza-baltasuna, lanerako kapazitatea, partaidetza, autonomia, inizatiba, zerbitzuaren publikotasun-zentzua, justiziarako sena berezia, etab. etab. Agian *militantzia* da ezaugarri nagusia baina ez da profesionaltasunaren etsai. Alderantziz, proiektu berri eta aldatzaile batekiko identifikazioa adierazten du termino horrek (hemen, behintzat) eta horren arabera dena emateko prestutasuna erakutsi ohi dute mugimenduko kideek.

Baina ezaugarri horiek edukita ere, egoera desberdinak planteia daitezke. Gizarteak kontraesanak dituenez, bi eratara ebaki ahal da mugimendua,

hau da mugimendua, prozesu barruan, bi posiziotan egon daitekeela esan nahi da. Bietan ez, baizik eta aldi bakoitzean batean zein bestean. Horren arabera, mugimenduak gizarte egituraren ahuleziak, gabeziak osatzea helburu duenean, *gizarte-mugimendu* deituko dugu. Kontraesan ahulak, diferentziak konpondu nahi baititu. Aldiz, mugimendu horrek, gizarte-egituraren inbertsioaren bila dabilenean, marko-aldaketaren bila, gizartea beste parametrotara eramateko borrokan diharduenean, *herri-mugimendu* deituko dugu. Kontraesan nagusia gainditzea baitu xede.

Nik uste euskararekin lotutako mugimenduak bi alde horiek ala bat bakarrik erakutsi lezakeela. Bilatzen dena euskarak *ere* gizarte honetan leku izatea baldin bada adibidez, gizarte-mugimendua izango da. Ostera, helburua eta egunoroko lanaren jitea, markoa aldatzea baldin bada, dagoena deszentratuz beste zentratze bat proposatzea, hots, euskara izan dadila gizartearen zentru bakarra, herri-mugimendua dugu begien aurrean. Edozelan ere, arazoa ez da mugimendu konkretu baten kasuan bata zein bestea den ebaztea, baizik eta mugimenduak, prozesuan, dialektikoki, posizio batean zein bestean egon daitekeela azpimarratzea. Elebitasuna ala euskal elebakartasunaren kontuan sartzen gara hemen, adibidez, euskararen etorkizunean ari garelarik. Hizkuntz diferentzia eta aukerak kudeatzen ditu lehenak; hizkuntza propioaren esparrua eskuratzea bestek, gizartea euskararen inguruan osatzea, gainontzeko erdarak monolingüismo euskaldunaren osagarri eta aberasgarritzat hartuz.

Euskal prentsa ala euskarazko prentsa

Euskara dela eta bi aukera egin ohi dira kazetaritzaren egiturari. Zenbaitentzat, oraindik, euskal prentsak bi adar ditu: euskaraz idatzirik datorrena batetik, eta bestetik, erdaraz idatzirik datorrena. Ez da problemarik egiten. Biak dira *euskal*, Euskal Herrian egiten diren heinean. Prentsa honen gailurra, prentsa elebiduna da. Euskarari gizartearen duen (hala balitz gaitzerdi) proportzioa dagokio. Baina badago beste bereizketa bat egiterik. Horren arabera, alde batetik Euskal Prentsa (PNren zentzuan hartuta) daukagu eta bestetik euskarazko prentsa (euskaraz idatzia dena). Guzti honekin hauxe esan nahi dut, alegia, euskara hutsa ez dela nahikoa euskal prentsa edukitzeko; kazetaritza-arauek, huts-hutsean, ez dutela produktu idatzia euskal prentsa gauzaten. Finago aritu behar delakoan nago. Edo behintzat saiatu beharko genukeela.

Errepaso historikoa

Bereizketa guzti hau ez dela kapritxoa erakusteko historia hurbila begiratu atera nahi ditut arrazoiak. 1976a Euskal Kazetaritzaren Urtea izan zen, euskarazko aldizkariak horrela erabakita orduko *Zeruko Argia*-ren iniziatiba mamituz. Orduan oraindik ez zegoen prentsa elebidunik. Hori gerora etorri zen. 1976an bertan *Berriak* eta *Garaia* aldizkariak sortu ziren. 1977an *Deia* eta *Egin* egunkari abertzaleak, eta 1979an *Ere* eta *Punto y Hora de Euskal Herria* aldizkariak. Orduko hitz magikoa elebitasuna zen, euskaldunon arazo guztien sendabelar bailitzan. Baina ez zen horrelakorik suertatu, gero historiak ederki eta lotsagabeki demostratu

digunez. Elebitasunetik ez dator euskal elebakartasunik; alderantziz, euskararen prestigioak darama elebitasuna planteiatzera. Prentsaren kasuan, adibidez, euskarazko egunkari baten potentziak bestelako prentsari hizkuntzagatik ez diezaion bezerorik ken. Egunen batean neurtu egin beharko da euskarazko prentsak, euskaraz aritu eta prentsa duina egiteagatik, zenbateraino bultzatu dituen gainontzekoak euskara ere bere orrialdeetan sartzen, horregatik bederen irakurlerik ez galtzeko ahaleginean.

Geurera itzuliz, honela mintzo ziren garai hartan euskaraz ari ziren aldizkariak gai honi buruz:

...euskal kazetaritza (idatzia) irmo bat sortu behar dugu (*Zeruko Argia*, 1976-I-4).

euskaldunon iritzi, lan, arazo, jokabide eta ametsen berri emango duen kazetaritza behar dugu. Euskal lehiatilik munduari so egingo dion kazetaritza, munduko berriez gure herria hezetuko duen kazetaritza (*ibidem*).

Esan beharra dago orduko kontestu hartan kazetaritza hori euskarazkoa zela, noski. Hara, bestela, adierazpentxo batzuk:

euskal kazetaritzaren hauzia erdaraz konponduko denik ez dut uste (*Amatiño, Zeruko Argia*, 1976-II-1).

Euskal Kazetaritza ahultzeko eta zapuzteko bide bilakatzen duen erdal aldizkaririk euskaldunena ere ez baitaiteke onar (*Zeruko Argia*, 1976-I-8).

Prentsa elebiduna heldu zenean, Euskal Prentsa bere burua definitu beharrean aurkitu zen. Barnera begira erabat argia zena, kanpora begira ez baitzen hainbeste.

Euskal prentsa euskaraz dela zioen *Anaitasuna* aldizkariak, 1976-IXko alean.

Euskal prentsa euskaraz dela aitortu, onhartu eta laguntzen ez duen prentsak (abertzaleak barne) diglosia finkatzen du (*ibidem*). Euskal prentsa euskaraz eginikoa da. *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* izan ezik Euskadin eginikoak bai (euskal ikuspegitik nahi baduzue) baina ez Euskal Prentsa (*Zeruko Argia*, 1978-I-15).

Ikusi nahi duenarentzat euskal prentsaren autonomotasunaren hazia zegoen han:

Gure helburua Euskal Prentsa desarrollatzea da eta hortik euskal gizarteari erantzun bat ematea (*Zeruko Argia*-koek, *Egin*, 1978-VI-13).

Gaur egun klaro klaro daukaguna zera da, euskal aldizkariak ez dute antzina bezala hizkuntz eskola soilik izan behar. Ez dute bakarrik irakurlegoa euskal irakurketaz ohitu behar. Zerbait gehiago izan behar dira. Kazetal ikuspuntu hutsez lanegitea, helburu gisa Euskal Herriaren berreskuratzea, birbatzea eta burujabegoa lortzea delarik eta hau argitalpen periodikoen muga barnean, noski (*Anaitasuna*, 1978-IX).

Hizkuntz eskolatik proiektu nazionalerako pausua da hau hain zuzen. Manifestu politikoa dago honen azpian, ikuspuntu nazionala, edozein koloretako abertzale batentzat proposamen orokor eta zehatza aldi berean. Proiektu hau 1976tik *Euskaldunon Egunkaria*-ren garaietara dator zuzen-zuzenean, hamarkada osoan *Argia* aldizkaria buru izan duen mugimendu adierazgarri eta ilusionatu oso baten lekuko.

Euskal prentsa ala herrietako prentsa

Historikoki⁵ hortxe hasi zen kalbarioa euskarazko prentsarentzat, prentsa baino gehiago izan nahi zuelarik, proiektu nazional baten parte gisa azaltzen baitzen. Ez halere egituraren parte organiko gisa, baina bai mugimendu zabal horren eragileetarik bat. Esan nahi baita arazoa ez dela partidu baten estrategiaren arabera neurtu behar. Horixe izan da, adibidez, EAEko botere autonomikoak betidanik eman duen interpretazioa, faltsua noski.

Zeruko Argia-k argi zerutiarra galdu eta *Argia* bilakatzen denean kalbarioa gogortu egiten da hamarkada oso batez. Oraintsu arte, mugimendu haren oinordeko den *Euskaldunon Egunkaria*-k pairatu du proiektu haren zutaberik sendoena delako, areago Euskal Prentsaren untzi-ikurra delako.

Historiak erakusten digunez *Euskal Prentsa* proiektu herritarra zigortu izan den bitartean, euskarazko soila promozionatzeko problema handirik ez da egon, eta guttienez zirkunstantzia hau erreparatu dadin ohartarazi nahi dut.

Gauzak horrela, bereizketa bat proposatzen dut: *Euskal Prentsa* herri-mugimendu gisa arituz, joera anizkoia nabarmenduz, proiektu nazionala eraikitzeko bitarte bihurtzen denari (kazetaritzako esparrua abandonatu barik) deituko diogu. *Euskarazko Prentsa*, ostera, gizarte-mugimendu mailan ari denari, kazetaritzako proiektu huts izan nahi duenari, profesionaltasunaren atxakiaz gizarte-ko proiektu politiko guztiak berdinkidetzat hartzen dituen, bizkarrezurra

5. Honen berri zehatzago nahi duenak, kontsulta beza Zalakain 1994, bereziki IV. kapitulua.

ugaritasuna, pluralismoa, gehiengoa duenean, aspektu konfliktiboak alde batera utziz.

Bereizketa, gorago ere esan dugunez, ez da kartesianoa, dialektikoa baizik, herri-prentsa ere egituratzen den neurrian gizarteko hutsuneak aldatzen baititu hein handi batean.

Euskal Prentsa-k proiektu nazionala du helburu (prentsan). Euskal Herri egituratuaren (nazioaren) prentsa euskara hutsez izango delako apustua da.

Euskal Prentsa hori, produktuak baino nominazio bat da (proiektu nazionala prentsan nominatzeko modu bat) eta horretan dauden guztiak Euskal Prentsaren norabidean ari diren produktuak dira.

Bi zatitan banatuko nuke nik oraindik ideia hau: *Prentsatasuna* (horrek izaera profesionala eta homologagarria eskatzen du eta adierazten du. Ahalik eta onena izatea eskatzen du). *Euskaltasuna* (horrek euskarak duen proiektio politikoa adierazten du). Ez da kode-aldaketa bat, hizkuntza-aldatze hutsez nabarmenduko litzatekeena. Euskaltzale-tasunak, abertzaletasuna darama muinean,⁶ eta hori erreferentzia politikoa da bete-betean, ez alderdikoa (berriro). Beraz, euskara nazioa sortzeko elementua da. Horrela ulertu izan du beti euskal mugimenduak, baita *Euskal Prentsa* deitua izan den mugimenduak ere.

1976an hasten den mugimendu hura⁷, elebitasunarekin hautsi eta prentsa euskaran zentratzeko abiadan

6. Ideia hau onartuko ez duenik badago, hala nola ikusi Zabalo, Julen, "Euskara versus nazionalismoa", *Larrun*, 21. zb. 199ko ekaina, 15-27 or. Bere hitzetan *euskara eta euskal nazionalismoa hain estuki ibiltzea azken hogeitamar urteotan onuragarria izan da bientzat* baina halere Zabalo euskal presoaren ustez *gaur egun, nazionalismoa ez da, lehenago bezala, bizitza iturri ia bakarria euskararentzat*. Antza denez *binomioa ez da[lako] lehen bezain argia*. *Euskara erabiltzea lan militantea da askotan, segitzen du Zabalok*. *Militantzia hori nazionalismoa eskaini dio hein handi batez, baina azken honek etekin politikoa era atera dio eta, ondorioz, bion arteko identifikazioak hedapen soziala murriztu dio, apika, bai nazionalista ez diren alderdiek, identifikazio horri eutsirik, axolagabekeria handiz jokatu dutelako arlo honetan, nazionalisten joku politikoaren kontra egitearren*. Beraz, proposamen hau du: *euskararen auzia despolitizatzea onuragarria izango litzateke euskararentzat eta hori lor dadin modurik egokiena da joera politiko guztiek euskara bereganatzea eta sustatzea*. Izan ere Zabaloren ustez *nazionalismoarekiko identifikazioa apurtuta, euskarak hedapen soziala irabaz lezake eta alderdi politiko ez-nazionalistek lasaia eutsi liezaioke*. *Alde honetatik, beraz, euskaltzaleek ontzat hartu beharko lukete nazionalismoarekiko loturak arintzea*. *Nazionalismoaren aldetik banaketa hau onuragarria ere suerta daiteke*. Nazionalismoa eta partidu nazionalistak nahastea egotziko nioke nik artikulu horri. Okerrago, politika partidu politikoetan agortu nahi izatea. Euskara ez da partidu nazionalisten ikurra, nazioarena baizik. Banatzekotan, nazionalismoa eta partidu nazionalistak banatu behar dira (besteak beste, hain zuzen, hura hauek baino gehiago delako), ez euskara; euskal nazioan sinisten dugun guztion (ez partiduetan ari direnena bakarrik) ondarea baita euskara, hizkuntza nazionala, alegia. Nazionalista ez diren partiduek sinisten al dute euskal nazio independente edo, leunago esateko, burujabeen?

7. Benetako *gertakizuna* da urte hartan jazotakoa orduko prentsa mailan, orduko egoerarekin hautsi eta egoera berri bati hasiera eman baitzion. Orduko zenbait kazetarik, subjektu politikoaren osagarri bihurtuz, apustu eraginkorra egin zuten, hots, euskal prentsa bakarria euskarazkoa dela lau haizeetara aldarrikatuz, hori historian zehar egiaztatzeko lanean hasi ziren. Aldarrikatzea ausarta izanik, hamaika bider zailago bilakatu da hitza mantentzea, apustuari eustea, eguneroko zalapartak, ezinbesteko egokitu beharrak, etabarrek desbideraketa ugari eraginik, askotxok eman baitute amore. Taldetxo batek, berriz, gertakizun-uneko egia, egia historiko bilakatu dute. Norbaitentzat bidean bizitza bera uztea izan da. Ikus, zehatzago ene liburua (Zalakain1994).

sartu zena alegia, *Euskal Prentsa* deitzen da, Euskal Herria Euskal Nazioa egiteko proiektuaren korrontean sartuz (onerako eta txarrerako). Proiektu hori, Euskal Prentsa alegia, herri-proiektua dela uste dut nik. Herria⁸ elementu desegituratu eta dinamikoa delako, esparru geografiko osorako euskarazko prentsa sortzeko kapazitatea duen hori hain zuzen, eta nazioa, euskal nazioa, antolatzeko bere indarra eskaintzen duena, ekinean ari diren beste guztiekin batera.

Beronen helburua euskarazko prentsa Euskal Nazioaren prentsa bakarra izatea lortzea da, Euskal Herri euskaldunari, euskarazko prentsa dagokiolako. Prozesu bat da noski. Prozesuak gorabeherak izan ohi ditu. Ez da inola ere esan gura gaur egun euskal prentsa bakarra euskaraz idazten dena soilik denik, besteak beste, EP izateko hizkuntzaz aparte beste zerbait ere behar delako. Esan nahi dena da Euskal Herri euskaldunari (besterik ezean ez delako izanen), euskarazko prentsa dagokionez, horrela definituko dugun gizartean egonen den prentsa bakarra

euskarazkoa izango dela. Beste zenbait hizkuntzatan, agian, egingo den prentsa, bertan egindakoa izango da baina ez euskalduna, Marbellan egiten den ingelesezkoa espainola ez den bezalaxe. Prozesu horren hazia, baina, ereinda dago, gutxienez *Euskaldunon Egunkaria*-ren kasuan. Prozesuak integratzailea behar du izan, gainera. Euskaraz eta ez erdaraz zentratutako integrazioa bilatzen duena alegia, euskara ez baita beste hizkuntza bat. Proiektu propiora gero eta jende gehiago ekarri nahi duena, profesionalizazio gordina behar duena. Euskaraz egiten den prentsak balioa eta kapazitatea baldin badu, konpetitzeko gai baldin bada, hizkuntza horretan ematen diren albisteak eta lan egiteko estiloak merezi badu, gai izango da proiektua ere euskarazko produktuetara gero eta jende gehiago ekartzeko.

Tolosa, Malerreka, Legazpi, Bergara, Arrasate, Betelu, Orereta, Donostian egiten diren aldizkariak Euskal Prentsa diren ala euskarazko bakarrik, ez dut nik oraingoz esaterik. Ez naiz oraindik horretara ausartzen, besterik

8. *Herria* hitzetik-hortzera darabilgun kontzeptua izan arren, historikoki politikan erabili ohi den zentzuan ematen dut nik hemen. Hau da, azkar esateko, herria ez da biztanleria, herritarreria, herritarren kopurua alegia. Zerbait zehatzagoa da herria. Herria elementu dinamikoa da, koalitatiboa, ez kantitatean osatzen den zerbait. Beraz, herria ez da Euskal Herri geografikoan bizi den giza multzoa. Politikan, herria besterik izaten da. Eskandaloso bilaka ez dadin, hizkera arruntean ere badago horren aztarnarik. Adibidez, jende xeheak esaten duenean *honetako eta halako neurri politikoen erruz, hemen beti herriak galtzen du*, populua esan nahi du, duda barik. Eta nork pentsa lezake hor biztanleria guztia sartzen denik? Ez al dago hemen bereizketa sakon eta esanguratsurik? Horrelakoetan jendeak ez al du esan nahi, alegia, biztanleen artean, herri ez direnak ere badirela? Herria beraz, elementu espezifikoa bat da, hots, gizartea, egoera jakin bat, hankaz gora jarri eta aldatzeko tenorean dagoen elementua. Herri hori historikoki proletalgoa, herri langilea eta antzeko kontzeptuz ezagutzen da. Erligioaren kasua (oso adierazgarria, bestalde) bazter utzirik, Marxengana jotzen bada argi ikus daiteke proletalgoa ez dela partidu proletarioetan biltzen den multzoa besterik gabe, komunismoaren egitura eramateko sortua izan den kapazitate politikoa baizik, burgesiarekin apurtzeko gauza izango den indarra alegia. Gero hori partidu proletarioetan mamitu den ala ez besterik da, bistan denez. Izan ere ikuspegi soziologiko kaxkar baten eraginez, indar hori obreroekin parekatu nahi izan da, soldatapean bizi direnekin. Sakon-sakonera jotzen bada, berriz, proletalgoa komunismoaren xedea benetan daramatenek osatzen dute, *daukanak dauka* alegia, eta argi dago, ideia hori kolektibo diferenteetan mamitu daitekeela historian zehar. Une honetan adibidez, ideia hori,

gabe. Azterketa sakonago eta hurbilago bat eskatuko luke. Agian pistarik eman dut, goiko lerrootan. Edozelan ere ez dut horrelakorik entzun bazterretan. Irakurtzen dudanagatik, gaur egungo aldizkariak, euskara hutsean ari direnek barne, herrian zein eskualdean euskara irakurtzeko ohitura zabaldu, idazteko gaitasuna sortu, informaziorik hurbilena hedatzea dute helburu. Profesional izan nahi

dute beren lanean. Alergia diote militantzia kontzeptuari. Kontzeptu zaharkitutzat dute. Ez dute ulertzen biak izan daitezkeela beharrezko euskarazko proiektu bat mantendu ahal izateko. Bereizketak klasifikatzeko baino gehiago balio ohi duela, kontzeptualizatzeko ekarpen bat eskaini nahi izan dut. Hori izan da behintzat, oraingoz, nire helburua.

mistika hori, ez dago inola ere partidu obrero klasikoetan. Gaur egun, adibidez, herriak nazio eta estatuaren arteko antagonismoa erakusten du bereziki, zeinak, etorkizunari begira, nazioa askatuz osaturiko gizarte berria aldarrikatzeaz gain berori gauzatzeko balio baitu. Ideia hori oso errotuta dago Euskal Herrian, batez ere ETAK botatako "askapen nazional zein sozialerako" garrasiaren ondoren. Harrezkerotzik, herri langilea deitu subjektu politikoa jartzen da martxan. Nominazio hori ez da, ordea, izendapen hori formalki beretzat hartu dutenentzat gordea. Askapen nazionala eta soziala egunereko gupilean mamitzen saiatzen direnentzat baizik. Herria, beraz, askapen horren subjektua da. ENAM da guzti horientzako altzoa. Ez, ostera, bere zentzu formal edo egiturazkoan, benetakoan baizik. Beraz, subjektibazio militantetik ez badago, askapen nazional zein sozialik ez bada ikusten, ahalegin gartsuaren bidez helburua mami bihurtzeko kapaz direnak ez badira inon azaltzen, herri langilea ere, proletalgoa edo komunismoa bezain kontzeptu huts bihurtuko da. Herriaren ordeztu, gizabanakoz osatutako gizarte-konexiorik gabekoa izango dugu. Zentzu espezifikorik horretan hartzen dut nik herria. Herri-proiektua adierazten denean, beraz, zentzu horretan hartu behar da. Zentzu horretan, baita ere, herri-prentsa eta gisako mugimenduak eragindako produktuak, ez dagoen baina egonen den herritar guztientzako prentsa euskarazkoa, nazioa, euskal nazioa antolatzen lagunduko duen proiektua. Hau ederki asko garatu du J. Agirre kolektiboak (1994). Nik, aipatutako nire liburuan, euskal prentsa hau, herri-proiektua alegia, ENAMen osagarritzat jotzen dut, egonezin bat baino gehiago sortuz. Ohiturak eragindako gaizki-ulertze baten ondorioztat dut hori guztia. Izan ere hemen inork ezin du bereizi politika politikariengandik edota partiduetatik, eta noski, ENAM esaterakoan, denek HB, KAS eta ETAn pentsatu dute, egitura horietan enkuadraturik ez daudenak xede horren militante izaterik ez bailuen. *Euskaldunon Egunkaria*-ren guraso izan direnek, azken urteotan egunkaria ENAMen mundukoa zela indar osoz ukatzen saiatu ondoren, beren ahalegin hori norbait (Administrazio Kontseiluko kide bat gainera, hots, gauzak barrutik jakiteko arrazoi bat baino gehiago zeukan bat) gezurtatzen dabilela pentsatu zutelako; orain arte etsaiarena egin dutenek (erakunde autonomikoetakoek), berriz, horrela konfirmaturik ikusi omen dutelako beren betiko tesia, hots, egunkaria biolentoen *munduko* haurra dela eta horregatik ez duela merezi demokraten diru-laguntzarik. Nire liburuan espreski ukatzen da horrek izan behar duenik interpretazio zuzena (ikus 249-258 or. "ENAM-ekiko identifikazio gaiztoa"). Susmoa dut, ordea, nahikoa alferrik izan dela. Halere gera bedi berriro idatzita, aipatu liburutik ekarria: *Neronek esan dut liburu honetan euskal prentsa ENAMen baitan ulertu behar dela. Baina hori, besterik gabe, esatea axolagabekeria hutsa da, eta hori niri egoztega oker nabaria. Zeren, zergatik ulertu behar da Euskal Nazio Askapen Mugimendua sigla horrekin? Ez ote da hobe, eta hamaika bider aberatsago, egiturak (aparatoak) alde batera eta bestera horien azpian dagoen sena (egia) jartzea? Saiatu hori egiten, eta konturatuko zarete sena hori ez dagoela (dagoenean) sigla barruan soilik; kanpoan ere bai, eta sarri askotan, askozaz biziago. Edonola ere demonizazioak ez du gure problema izan behar. Hori demonizatzaileen arazoa da, herri-dinamika oparoa indargetzeko erabiltzen dutenena. Eta gurea ere bai, asimilatu ezezik paralizatzen ere gaituenean.*

Bibliografia

- Agirre, J., (1994): *Nueva política para nuevos tiempos*, [= *Herria 2000 Eliza*, 132 monografikoa].
- Askoren artean, (1991): *Herri komunikabideei buruzko I.go Jardunaldiak*, AED, Arrasate.
- Askoren artean, (1993): *Herri komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak*, ARKO, Arrasate.
- Askoren artean, (1992): *Tokian tokiko prentsari buruzko monografikoa* [= *Jakin*, 69].
- Azkargorta, A., (1988): *Editorialea gertakizunaren aurrean: El País eta Euskadi* [doktoretzatesia, EHU/UPV, Leioa, argitaratu gabea].
- Zalakain, J., (1994): *Joxemiren uzta, euskal prentsa herri-proiektua da*, Txalaparta, Tafalla [IV eta V kapituluak bereziki].